



## NERABEEN IMAGINARIOA

Nerabe-talde baten paisaia pertsonalean murgiltzea.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTE-HARTZAILEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteen ikus-imaginariora eta inguruan duten mundura <b>hurbiltzea</b>.</li> <li>• Norberaren eta inguruko <b>imaginarioen artean harremanak sustatzea</b>.</li> <li>• Norberaren <b>identifikazioaren inguruko hausnarketa bultzatzea</b>.</li> <li>• Irudimena eta <b>sormena sustatzea</b>.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Galderen, kontzeptuen eta ideien argazki-irudikapena.</li> <li>• Argazkien azterketa.</li> <li>• Irudietako edukien irakurketa.</li> <li>• Iritziak batu, eztabaidatu eta hausnartu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte-hartzaile kopurua: <b>10</b>.</li> <li>• Adina: <b>14 – 18</b>.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>3 saio:</b> 2 o/s.</li> </ul>

**ZURE BURUA  
EZAGUTZEN AL DUZU ?**

**BERDINAK, BAINA DENAK DESBERDINAK**

**GAUZAK**

Enfants Terribles  
PKT-online  
Dot Dot Dash

**BONUS TRACK AGENDA DEIAIDIAK IKASTAROA**



2006ko abenduko azala.

## 0. TESTUINGURUA

Lantegi hau *PKTexpres* Lantegi-programaren (2006-2008) barruan kokatzen da. Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren menpe sortutako ekimena da eta hiriko hainbat gazte-kolektiboekin batera, prozesu parte hartzaile eta kolaboratzaileak bultzatzen ditu, talde-lana, inguruaren azterketa eta espirtu (auto)kritikoa sustatuz.

Lantegietan landutako edukiak *PKTenteres* aldizkarian argitaratzen dira (azalean eta bi orrialde). *PKTenteres* (PKT) 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako hilero argitaratzen den informazio-aldizkari dinamiko eta parte hartzailea da, Vitoria-Gasteizko Gazteria Sailaren menpe dago eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin (GAUB) elkarlanean egiten da.

Info+ *PKTenteres*: [www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres](http://www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres)

Info+ GAUB: [www.vitoria-gasteiz.org/omij](http://www.vitoria-gasteiz.org/omij)

## 1. NERABEEN IMAGINARIOA

Gazteok desberdin eta paregabe sentitzen dugu geure burua. Hainbestera non bestelako gazteekin identifikatzea zail egiten zaigun. **NERABEEN IMAGINARIOA** izeneko lantegian bakoitza bere paisaian murgiltzen da balizko gazte-eredu gisa, talde handiago baten adibide bihurtuz.

**ZURE BURUA EZAGUTZEN AL DUZU? Berdinak, baina denak desberdinak.** Izenburu hau aukeratu zen Nerabeen IMAGINARIOA lantegitik ateratako PKTenteres aldizkariako kolaborazioarentzat. Gazteak eurenak ez ziren irudien aurrean jarri genituen eta haiekin bat zetozen ala ez galdetu. Jaso genituen erantzunak ikusita, izenburu ezin hobea iruditu zitzaigun.

Denon artean kolaborazioaren izenburua eta izaera adostu genituen.

## 2. HELBURUAK

Hona hemen *PKTexpres* lantegien helburu orokorrak:

- PKTenteres aldizkaria gazteengana hurbiltzea eta euren adierazpide eta tresna gisa sentiaraztea.
- Gasteizko gazteen arteko parte-hartzea eta elkarlana sustatzea.
- Gazteen beharrak ezagutzea eta haietara hurbiltzea.
- Gaur egungo gazteria indartzea eta hari hitza ematea.
- Talde-lana sustatzea
- Nerabeen arteko elkarrizketa eta espirtu kritikoa bultzatzea.
- Gazteen eta erakundeen arteko hurbilteta-formulak sortzea.
- Gazteen artean parte hartzeko lotura berriak sortzea.
- Inguruko mundua aztertzeko duten gaitasuna suspertzea.

*PKTexpres* lantegiak Gasteizko Udalaren lantegi-programan kokatzen dira. Bertan sortzen diren eztabaidek eta edukiak PKTenteres aldizkariaren edukiak osatuko dituzte.




Lantegitik ateratako eta aldizkarian argitaratutako azken edukiak.

Jaits ezazu PKTenteres .zbk. (2006ko abendua)  
[www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres](http://www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres)



15. galderaren erantzuna.



01. galderaren erantzuna.

*Logela baten irudia, parte-hartzaileen artean atera den erantzun ohikoena.*



14. galderaren erantzuna.

- Hiritar aktibo gisa sormenean eta edukien zabalkundean bizkortzea.
- Nerabeen interesak eta kezak ezagutzea.
- Haien sormen-gaitasuna bizkortzea.
- Haien jardunean praktika egokiak bultzatzea.
- Haien jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea.
- Elkartasuna eta begirunea sustatzea.
- Berdintasunean eta genero kontuetan heztea.

**Nerabeen Imaginarioa lantegiaren helburu bereziak honako hauek dira:**

- Gazteen ikus-imaginaria eta inguruan duten mundura hurbiltzea.
- Parte-hartzaileek inguruan dutenari buruz hausnarketa egitea. Eta ondoren, norberaren inguruaren eta gainontzekoeren artean loturak sortzen saiatzea.
- Gazteria deitzen dugun kolektiboarekin duten identifikazioaren inguruan hausnarketa bultzatzea.
- Irudimena eta sormena sustatzea.
- Haien jardunean praktika egokiak bilatzea.
- GAUBren eta gazteen artean lotura parte hartzaile berriak sortzea. Bulegoarekin identifikatuago sentitzea eta informazioa jasotzeko erabiltzeaz gain, haien informazioa bertara eramateko ere erabiltzea.

## 3. EDUKIAK

### Nerabeen Imaginarioa.

Galderak irudiekin erantzun behar dira eta gai batzuk oso objektiboak diren bitartean, beste batzuk erabat subjektiboak dira. Batzuk oso modu zuzenean erantzun daitezke eta beste batzuk norberak nahi duen sofistikazio guztiarekin. Hona hemen galderak:

- 01.- Nolakoa da zure logela?
- 02.- Zein da gehien atsegin duzun objektua?
- 03.- Nolakoa da zure familia?
- 04.- Nor zaintzen duzu zuk?
- 05.- Zein da zure *look* politena? (nola sentitzen zara erakargarriago?)
- 06.- Nolakoa da zure institutua/eskola?
- 07.- Nolakoak dira zure lagunak?
- 08.- Nolakoa da zure motxila?
- 09.- Gehien atsegin duzun liburua.
- 010.- Gehien atsegin duzun artista
- 11.- Gehien atsegin duzun arropa.
- 12.- Zuretzako egun paregabea.
- 13.- Zerk gogaitzen zaitu gehien zure inguruan?
- 14.- Debekaturik duzun zerbait.
- 15.- Zein bide erabiltzen duzu zure lagunekin komunikatzeko?
- 16.- Ezinbestekoa zaizun eta beti gainean daramazun zerbait.
- 17.- Egitea atsegin duzun zerbait.
- 18.-Nola ikusten duzu zure burua 15 urte barru?
- 19.-Zeintzuk dira zure ametsak?
- 20.-Zer behar duzu zoriotsu izateko?



7. galderaren erantzuna.

*Aldizkariko kolaborazioa eta bere izaera irakurleei zuzendutako denbora-pasa gisa definitu zen. Irakurleak argitaratutako irudiak lau galderekin lotu behar zituen. Irudi hauek lantegiko saioetan erakusleen artean gehien errepikatu ziren erantzunak izan ziren.*



20. galderaren erantzuna.

*Partaideen iritziak eta zintzotasuna ezinbestekoak dira, gazteak eurak izango baitira euren epai zorrotzenak.*

## 4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Metodologia parte hartzailea, analitikoa eta sortzailea izango da. Hasteko, 20 galdera erantzun behar dira irudiak erabiliz eta ondoren, irudi horiek guztiak aztertu egingo dira.

Galderak erantzun.  
Erantzunak batu.  
Edukiak aztertu eta eztabaidatu.  
Berdintasunak eta desberdintasunak identifikatu.

## 5. LANTALDEA

**Parte-hartzaile kopurua:** 7-9 lagun

**Adina:** 15 – 18 urte

**Sexua:** Talde mistoa.

Erakusleen kolektiboa talde ezin hobea izango da mota honetako ekintza batean GAUBrekin koordinazioan lan egiteko. 13 ikastetxeetako 26 ikasle dira, hiriko zenbait lekutatik datoz eta gizarte-maila desberdinetakoak dira.

Alde batetik, elkar ezagutzen dute (ikastetxe berekoek baino ez dute elkar ezagutzen) eta bestetik, hain dira desberdinak non Gasteizko gazteen egoera orokorraren ispilu baitira.

## 6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2006ko azaroko 3 ostiral.

Azaroak 03.....1 h (19:00-20:00h).

Azaroak 10.....2 h (18:00-20:00h).

Azaroak 17.....2 h (18:00-20:00h).

## 7. KOKAPENA

Lehenengo harremana GAUBren egoitzan izango dute eta hurrengo batzarrak Landatxo Gizarte Etxean egingo dira.



## 8. MATERIALA

### Materiala:

- Ordenagailua (eramangarria).
- Kanoi-proiektagailua.
- Parte-hartzaile bakoitzaren argazki-kamera.
- Argazkiak ordenagailura pasatzeko kablea.

### Azpiegiturak:

- Gela bat, aulkiak eta irudiak proiektatzeko horma.

### Parte-hartzaileek ekarri beharreko materiala:

- Argazki-kamerak eta norberaren irudi pertsonalak.



11 eta 18. galderen erantzunak.

*Gazte bakoitzak paregabe eta ulertua sentitu behar du, baina era berean, talde bateko partaide, gustu, dinamika eta aurreiritzi berdinekin. Ez dute isolaturik egon nahi.*

## 9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...)
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa)
- Harreman eta empatía maila
- Taldearen harreman pertsonalak
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna
- Sormen-gaitasuna
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.


## 10. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

**1eranskina:** 1. saioa

**2eranskina:** 2. saioa

**3eranskina:** 3. saioa



4. galderaren erantzuna.



*Haien gustukuak ez diren gauzekiko eta arbuiatzen dituzten taldeetako partaideekiko distantzia jartzeko beharra dute.*



1. galderaren erantzuna.

## 11. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezakak, etab.

### IA18

Aretxaga, 10  
48003 Bilbao  
946 053 468

[www.casitengo18.com](http://www.casitengo18.com)  
[info@casitengo18.com](mailto:info@casitengo18.com)

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





## 1. SAIOA

### HELBURUAK

Gasteizko gazteen artean **parte-hartzea eta elkarlana sustatzea**.  
**Gazteen beharrak ezagutzea eta haietara hurbiltzea.**

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	PKTaren aurkezpena.	PKT.	PKT.
20 min.	Lantegia azaldu.	Lantegiaren <i>Planing-a</i> .	
15 min.	Lantegiaren datak zehaztu.	Jardueren egutegia.	Egutegia.
15 min.	Jardueren inguruko galderak bultzatu eta zalantzak argitu	Zalantzak, egin beharreko ekintzaren inguruko galderak.	Galdera-zerrenda.

**PKT aurkezpena** ----- **10 min.**  
 Aldizkaria azaldu. Edukien aurkezpen laburra, kolaborazioak, espiritua...

**Lantegia azaldu**----- **20 min.**  
 Lantegia azaldu: Nerabeen Imaginarioa. Lantegia nolako izango den azaldu, planing-aren azalpen laburra. Lantegiaren helburuak eta PKTenteres aldizkariko kolaborazioa. Galderak irudiekin erantzun. Kamara digitalarekin ateratako irudiak (kamerarik ez dutenentzat erabili eta botatzeko kamerak lortzeko aukera egongo da).

**Lantegiaren datak zehaztu**----- **15 min.**  
 Taldearekin batera jardueren egutegia zehaztu, zenbateko denbora behar izango duten eta egokien iruditzen zaizkien datak.

**Jardueren inguruko galderak sustatu eta zalantzak argitu** ----- **15 min.**  
 Galdera-zerrenda taldeari banatu eta azken momentuan sor daitezkeen galderak eta zalantzak argitzen saiatu.



## 2. SAIOA

### HELBURUAK

**Gazte-kolektiboaren barruan bakoitzaren identifikazio-maila** zer nolakoa den **hausnartzea**.  
Gazteen ikus-imaginaria eta haien mundura hurbiltzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
45 min.	<b>Irudiak bildu.</b>	Egindako galderen erantzunak, irudiak.	Ordenagailua (eramangarria) Argazki-fitxategiak Txartel-irakurgailua.
45 min.	<b>Materiala galderen arabera antolatu.</b>	NERABEEN IMAGINARIOA	
30 min.	<b>Hutsuneak identifikatu.</b>		

**Irudiak bildu**-----**45 min.**

Irudi guztiak, parte-hartzaileek sortutako materiala eta galderei emandako erantzun pertsonalak bildu.

**Materiala galderaka antolatu**-----**45 min.**

Irudiak galdera-karpetaka ordenatu hirugarren saioan denok elkarrekin lantzeko.

**Hutsuneak identifikatu**-----**30 min.**

Zailtasunagatik edo bestelako arrazoiengatik erantzunik gabe geratu diren galderak identifikatu eta denon artean komentatu hurrengo astean erantzuna bilatzen saiatzeko.





### 3. SAIOA

#### HELBURUAK

Parte-hartzaileek **haien inguruari buruz hausnarketa egitea**.  
**Loturak sortu bakoitzaren eta besteen munduen artean**.  
**Irudimena eta sormena** sustatzea.  
 Gazteak **hiritar aktibo** gisa suspertzea sormena eta edukien zabalkundea erabiliz.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	<b>Karpetak osatu.</b>	NERABEEN IMAGINARIOA Haien erantzunak eta galderak.	Bestelako irudiak.
30 min.	<b>Irudiak ikusi eta sozializatu.</b>	Erantzunen arteko berdintasunak eta desberdintasunak.	Ordenagailua. Bideo-kanoia.
30 min.	<b>Irudien arteko loturak ezarri.</b>	Irudi-motak, galdera moduak, etab.	
30 min.	<b>Beste erantzunekiko identifikazio-maila komentatu.</b>		
15min.	<b>PKTrako kolaborazioa zehaztu.</b>	Komunikazioa.	

**Karpetak osatu**----- **15 min.**  
 Ekarriko dituzten irudi berriekin karpetak osatu eta horrela, galdera guztien erantzunak landu.

**Irudiak ikusi eta sozializatu** ----- **30 min.**  
 Ordenagailu eramangarria eta bideo-kanoia erabiliz, irudiak horman proiektatu. Irudi guztiak berrikusi. Hasiera batean, modu anonimoan eta ondoren, irudi-multzo bakoitzaren egilea identifikatuz. Erantzun guztien inguruko iritziak bota eta galderak eta erantzunak lotzen jolastu.

**Irudien arteko loturak ezarri** ----- **30 min.**  
 Galdera bakoitzeko irudi guztien artean berdintasunak eta desberdintasunak bilatu.

**Beste erantzunekiko identifikazio-maila** ----- **45 min.**  
 Iruzkinen txanda, parte-hartzaileek besteen erantzunekiko izan duten identifikazio-maila komentatzen dute. Erantzun gustukoak irudia edo erantzuteko modua kontuan izanik, zein galderaren erantzunekin identifikatzen diren gehiago, zein galdera erantzuteko gai diren, etab.

**PKTrako kolaborazioa definitu** ----- **15 min.**  
 Kolaborazioaren izenburua eta izaera zehaztu.